

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak foru lege proposamena aurkeztu du, zeinaren bidez parekatzen baitira jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatuak diren kotizaziopeko prestazio-aldiak (10-20/PRO-00002).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez parekatzen baitira jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatuak diren kotizaziopeko prestazio-aldiak.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez parekatzen baitira jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatuak diren kotizaziopeko prestazio-aldiak

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, sozialki onartuta dago familiarentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere onuragarria dela kontziliazioaren alde egitea eta erraztea gurasoek, nahi izanez gero, beren seme-alaben zaintzan jardun ahal izan dezatela. Haurren osasunean eta ongizatean eragin positiboak daudela egiaztatu da, eta, aldi berean, gaixotasunak, estresa, laneko absentismoa, errendimendu baxua eta enpleguko errotazio handia murriztu dira gurasoengan. Gainera, gurasoek lanean duten motibazioan eta produktibitatean eragin positiboa dauka, beren bizi-kalitatearekin gusturago daudelako, eta hori, beraz, positiboa da politika horiek ezartzen dituen erkidegoko produkzio-sarearentzat.

Enpleguan eta lanean emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrii buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak aldatu egin ditu bai urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu battegina, bai urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu battegina, eta jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimena luzatzeko prozesu iragankor bat ezarri du guraso ez-haurdunarentzat; baimen hori, izan ere, 2021eko urtarrilaren 1ean guztiz parekatuko da ama biologikoaren baimenarekin (16 asteko baimena).

Nafarroan, berriki, Nafarroako Parlamentuak urriaren 23ko 4/2019 Foru Lege Dekretua baliozkotu du, presako neurri batzuk onesten dituen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan. Arau hori, besteak beste, Nafarroako administrazio publikoetako langileei baimen hori eman ahal izatera bideratuta dago; baimena, kasu honetan, 17 astekoa da. Hala ere, foru lege dekretu honek ez ditu bere eraginak hedatzen besteren konturako gainerako langileengana, kooperatiba-sozietateetako bazkide langileengana edo lan-bazkideengana eta norberaren konturako langileengana edo autonomoengana.

Izan ere, Nafarroak ez du eskumenik Gizarte Segurantzaren esparruan seme-alaben jaiotzagatiko eta zaintzagatiko kontribuzio-prestazioa arautzeko; horregatik, seme-alabak bizitzako lehen urtean zaintzeko eszedentziarako dirulaguntzaren forma juridikoa erabiltzea erabaki da. Laguntza honen helburua da, semea edo alaba iritsi ondoren, bi gurasoek, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileak ez direnean, jaiotzagatiko eta zaintzagatiko kotizaziopeko subsidioetan baliatutako aldiak parekatu ahal izatea, eta iraupen bereko aldi baterako eskubidea izatea –16 aste–, besterenezina, ordaindua eta denboran bat ez datorrena. Horrela, lotu egiten da zaintzaren rol femeninoa apurtzea, gurasoak zaintza-lanetan inplikatzea eta semeak edo alabak bi gurasoekin duen lotura indartzea; izan ere, ikerketa zientifikoak frogatu du bizitzako lehen hilabete horietan ezartzen diren loturak mantendu eta luzatu egiten direla hurrengo hazkuntza-etapetan, eta arrisku-egoeren aurrean babeseta eta sendotasuna izateko faktore bat direla. Neurriak, gainera, murriztu egiten du zaintza-lanek emakumeen laneratzean eta lan-karreretan eragiten duten penalizazioa, eta, beraz, eragin positiboa izanen du emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala ezabatzeko bidean. Laguntza besteren konturako langileentzat, kooperatiba-sozietateetako bazkide langileentzat edo lan-bazkideentzat eta norberaren konturako langileentzat edo autonomoentzat da; azken kasu horretan, ordea, laguntza jasotzeko baldintza da autonomoak langile bat kontrata dezala diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen aldi osoan, eta laguntza horren zenbateko ekonomikoa diruz lagundu daitekeen jarduketa hasi aurreko hileko kotizazio-oinarriaren % 100 izanen da. Laguntzaren erregulazioak, gainera, guraso bakarreko familien egoera hartzen du kontuan, halako moduan non ez den ekitaterik eza gertatuko bi kideen erantzunkidetasuna ezinezkoa den familia horietako seme-alabentzat.

Nafarroako, Espainiako eta Europako datu demografikoak ikusita, jaiotza-tasa sustatzea ez da aukera bat, baizik eta gure gizartearen etorkizuneko ongizatea bermatzeko beharrezkoa den zerbait. Belaunaldien arteko ordezkapenik gabeko gizarte zahartu bat ez da jasagarria, eta, horregatik, ezinbestekoa da familiei ikuspuntu guztietatik laguntzea. Laguntza horren ezinbesteko elementua da norberaren eta familiaren bizitza bateragarri egiten laguntzea eta familien askatasuna bultzatzea, beren burua nola zaindu aukeratzekoan.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da lan-eszedentzian dauden langileentzako laguntzak arautzea, jaiotzagatik edo urtebetetik beherako seme-alabak zaintzeagatik gurasoek baliatutako kotizaziopeko prestazio-aldiak parekatze aldera.

2. artikulua. Definizioak.

1. Foru lege honen eraginetarako, ulertuko da gurasoei buruzko aipamenak adoptatzaileei, tutoreei eta adingabeen adopzio aurreko zaintza edo harrera iraunkorra esleituta dutenei buruzkoak ere badirela, baldin eta Gizarte Segurantzak halakoei aitortu badie adingabeen jaiotzarengatik eta haiek zaintzeagatik kotizaziopeko prestazioak jasotzeko eskubidea.

2. Era berean, semeari edo alabari buruzko erreferentziek barnean hartuko dituzte tutoretza, adopzio aurreko zaintza edo harrera iraunkorreko araubidean dauden adingabeak ere.

3. Familia gurasobakarra da laguntza eskatu duen gurasoak eta harekin bizi diren seme-alabek osatzen dutena, baldin eta seme-alaba horiek ekonomikoki pertsona bakar horren mende badaude.

Inola ere ez dira familia gurasobakartzat hartuko ebazpen judizial bidez zaintza eta jagoletza partekatua ezarrita dutenak.

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1. Seme-alaben bizitzaren lehenengo urterako dirulaguntza emanen zaie seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzian dauden langileei, baldin eta seme-alaba horiek martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua – Enpleguan eta lanean emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzkoa– indarrean jartzen denetik aurrera jaio badira edo haien adopzioa, tutoretza edo adopzio-helburua duen zaintza edo harrera egin bada; neurri horren xedea da parekatzea Gizarte Segurantzaren esparruan seme-alaben jaiotzagatiko eta zaintzagatiko kotizaziopeko prestazioen aldiak, gurasoek baliatu dituztenak.

Adopzioaren, tutoretzaren edo adopzio-helburua duen zaintzaren edo harrera iraunkorraren kasuan, diruz lagundu daitekeen jarduketa gauzatu ahal izanen den urtea hasiko da adopzioaren –nazionala edo nazioartekoa– eraketa, tutoretza edo adopzio-helburuko zaintza edo harrera iraunkorra dagokion Erregistro Zibilaren bulegoan (kontsularrak barne) inskribatutakoan.

2. 1. puntuan zehaztutako eszedentzia-egoera diruz lagunduko zaio guraso bakoitzari, 112 egunen (16 asteren) eta Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan semea edo alaba jaiotzeagatik eta zaintzeagatik kotizaziopeko prestazio gisa diruz lagundutako egunen kopuruaren arteko aldeari dagokion denbora-tartean.

Semearen edo alabaren desgaitasun kasuan, 1. puntuari zehaztutako eszedentzia-egoera diruz lagunduko zaio guraso bakoitzari, 119 egunen (17 asteren) eta Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan semea edo alaba jaiotzeagatiko eta zaintzeagatiko kotizaziopeko prestazio gisa diruz lagundutako egunen kopuruaren arteko aldeari dagokion denbora-tartean. Luzapen bera aplikatuko da jaiotzaren, adopzioaren, tutoretzaren edo adopzio-helburuko zaintzaren edo harrera iraunkor anizkoitzen kasuan, lehenengoa ez den seme-alaba bakoitzeko.

Familia gurasobakarreko gurasoen kasuan, dirulaguntzaren aldia izanen da 168 egunen (24 asteren) eta Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan semea edo alaba jaiotzeagatiko eta zaintzeagatiko kotizaziopeko prestazio gisa diruz lagundutako egunen kopuruaren arteko aldeari dagokiona.

3. Legezko arau, hitzarmen kolektibo edo banakako akordioan ezarritako konpentsazio ekonomikorik edo ordainsaririk ez duten eszedentziak bakarrik lagunduko dira diruz.

4. Diruz lagundu daitekeen eszedentzia hartzeko baldintza izanen da beste gurasoak –eskatzaila ez denak–, halakorik badago, alta emanda egotea eta bere kontratuari dagokion lanaldi osoa egitea diruz lagundu daitekeen aldi osoan –guraso hori, izan ere, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.4 artikuluan araututako edoskitze-baimeneko egoeran egon ahal izanen da–, edo lan egiteko ezintasun absolutua aitortuta izatea.

5. Eszedentziak ez dira diruz lagunduko, baldin eta beste gurasoa –eskatzaila ez dena– lanaldi-murrizketako egoeran badago edo % 50etik beherako lanaldi partzialeko kontratua badu, bere jarduera gauzatzen duen sektoreko lanaldi osoarekin alderatuta.

4. artikulua. Pertsona onuradunak.

Hauk izan daitezke laguntza hauen onuradunak:

a) Langileen Estatutua aplikatzekoa zaien besteren konturako langileak, administrazio publikoetako sektore publikoko lan-kontratuko langileak izan ezik.

b) Sozietate kooperatiboetako bazkide langileak edo lan-bazkideak.

c) Norberaren konturako langileak edo autonomoak.

5. artikulua. Laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak.

Atal honetan aurreikusitako laguntzen onuraduna izateko ondoko baldintza hauk bete beharko dira:

a) Zaintzeko eszedentzia eskatu den semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza izatea, diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean.

b) Zaintzeko eszedentzia eskatu den semearekin edo alabarekin batera bizitzea eta erroldatuta egotea Nafarroako Foru Komunitateko edozein udalerritan, eskaera aurkezteko unean eta diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean.

c) Eskatzailaiek etenik gabe erroldatuta egon behar izan du eskaera aurkeztu aurreko urtean, edo, gutxieneko epe hori betetzen ez bada, 5 urtez jarraian aurreko 7 urteetan.

Ebazpen judizialean ezarritako zaintza eta jagoletza partekatuko kasuetan, semearekin edo alabarekin batera erroldatuta egoteko eskakizuna salbuesten da; kasu horietan, adingabeak zaintza eta jagoletza esleituta duten pertsonetatik edozeinekin egon beharko du erroldatuta.

d) Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan semea edo alaba jaiotzeagatiko eta zaintzeagatiko kotizaziopeko prestaziorako eskubidea eduki izatea eta eskubide hori agortu izatea.

e) Eskatzailaren semea edo alaba ezin izanen da matrikulatuta egon haur-hezkuntzako ikastetxe publiko edo pribatu batean.

f) Norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kasuan, diruz laguntzeko moduko eszedentzia baten pareko egoera gertatzen dela ulertuko da, baldin eta lanaldi osoko langile bat kontratatzen bada diruz laguntzeko moduko jarduketak irauten duen bitartean.

Kasu horretan, langilea lanaldi osorako kontratatu beharko da, eta Gizarte Segurantzako besteren konturako langileen erregimenean alta emanda egon beharko du diruz laguntzeko moduko jarduketa hasi aurreko hilabetean.

g) Zerga-betebeharrak egunean izatea –Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak zein Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen aldeko zorrak itzultzeagatiko betebeharrak–, eta ez izatea Diru-laguntzei buruzko Foru Legean diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako debekuetatik bat ere.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoa.

1. Besteren konturako langileen, kooperatiba-sozietateetako bazkide langileen edo lan-bazkideen eta norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kasuan, laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen jarduketa hasi aurreko hileko kotizazio-oinarria izanen da.

2. Gizarte Segurantzako norberaren konturako langileen edo langile autonomoen araubide bereziko kooperatibetako bazkideen kasuan, baldin eta sistema publikoa osatzen duen gizarte-prestazioen kooperatiba-arteko sistema bat badute, laguntzaren zenbatekoa Gizarte Segurantzaren eta aipatutako kooperatiba-sisteman diruz lagun daitekeen jarduketa hasi aurreko hilean dauden kotizazio-oinarrien batura izanen da, eta laguntzaren zenbatekoak ezin izanen du gaingitu une bakoitzean indarrean dagoen Gizarte Segurantzaren gehieneko kotizazio-oinarria.

3. Eszedentzia eskatu duen pertsonak hura hilabetetik beherako aldiengatik eskatu badu, laguntzaren zenbatekoa proportzioan zehaztuko da.

4. Eszedentziaz etenak eginez baliatzen bada, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiliko den kotizazio-oinarria diruz lagundu daitekeen jarduketa lehen aldiz hasi zen hilabetearen aurrekoari dagokiona izanen da.

7. artikulua. Eskaerak non eta noiz aurkeztu behar diren.

Gizarte Segurantzak eszedentziagatiko baja egiaztatzen duenetik gehienez ere hilabeteko epean eskatu beharko da laguntza.

8. artikulua. Laguntzak emateko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Laguntza-eskaerarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Familia-unitatea osatzen duten gurasoen nortasuna egiaztatzea. Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan parte hartzen duen estatu bateko nazionalitatea duten herritarrei dagokienez, beren nortasuna pasaportearen edo beren herrialdean baliokidea den nortasun-agiriaren bidez egiaztatuko da, non titularraren nazionalitatea jasoko baita; gainerako herrialdeetako herritarren kasuan, berriz, Atzeritarren Nortasun Txartelarekin (ANT) edo pasaportearekin egiaztatuko da, edo, hala dagokionean, duten bizileku-baimenarekin.

b) Laguntzaren eskatzailearen eta zaintzeko eszedentzia eskatu den seme edo alabaren arteko seme-alabatasuna, adopzioa, tutoretza edo adopzio aurreko zaintza edo harrera iraunkorra egiaztatzea.

c) Eskatzailearen erroldatze-ziurtagiri eguneratua, bizilekuan bizi diren pertsona guztien zerrenda emanda eta eskatzailea udalerrian noiztik dagoen erroldatuta adierazita.

Laguntzaren eskatzaileak aurkeztutako dokumentazio eta informazio guztiak Nafarroako Foru Komunitatean egiazki bizitzeari buruzko zalantzak sortzen baditu, baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko eskatu ahal izanen du laguntza kudeatzen duen organoak.

Eskatzailea 6. artikularen c) letran adierazitako salbuespenaren barruan badago, erroldatze-ziurtagiri eguneratua eta salbuesitako egoera bete dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko ditu.

d) Gizarte Segurantzaren agiria, honako hauek egiaztatzen dituen: seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko baja hasi izana, diruz lagundu daitekeen jarduketa hasi aurreko hilabeteari dagokion kotizazio-oinarria eta semea edo alaba jaiotzeagatiko eta zaintzeagatiko prestazioa jaso duen denbora.

Gizarte Segurantzako autonomoen araubide berezian kotizatzen duten eskatzaile langileei ez zaie eszedentziagatiko baja eskatuko.

Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek egiaztatu beharko dute kontratatutako langilea Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela.

Era berean, kooperatiba-sozietateetako bazkide langileen edo lan-bazkideen kasuan, sistema publikoa osatzen duen gizarte prestazioen kooperatiba-sistema bat badute, kooperatiba-enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute; ziurtagiri horretan, adieraziko da eskatzailea seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzian dagoela, eskatutako eszedentzia-aldia eta aipatutako kooperatiba-sistemaren kotizazio-oinarria, diruz lagundu daitekeen jarduketa hasi aurreko hilabeteari dagokiona.

e) Gizarte Segurantzaren agiria, honako hauek egiaztatzen dituen: gurasokidea (eskatzailea ez dena) alta emanda dagoela eta bere lan-jardueran hasia dela bere kontratuari dagokion lanaldi osoa egiten; halaber, kontratuaren ehunekoa zehaztuko du, bere jarduera gauzatzen duen sektoreko lanaldi osoarekin alderatuta.

f) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena:

– zaintzeko eszedentzia eskatu duen semea edo alaba haur-hezkuntzako ikastetxe publiko edo pribatu batean matrikulatuta ez egotea buruzkoa.

– eskatutako eszedentzia-aldiari buruzkoa,

– Diru-laguntzei buruzko Foru Legean ezarritako gainerako baldintzak betetzei buruzkoa.

g) Adopzio, tutoretza edo adopzio-helburuko zaintza edo harrera iraunkorra gertatu bada, egoera horien Erregistro Zibileko inskripzioa aurkeztuko da.

h) Ebazpen judizialean ezarritako zaintza eta jagoletza izanez gero, horri buruzko ebazpena aurkeztuko da.

i) Familia gurasobakarreko gurasoak egiaztatuko du zaintzeko eszedentzia eskatu duen semea edo alaba ekonomikoki haren mende dagoela.

9. artikulua. Laguntza kudeatzeko eta emateko eskumena duen departamentua.

Laguntza kudeatzeko eta emateko eskumena duen departamentuak izanen du familiaren eta haurren arloko eskumena.

10. artikulua. Laguntza emateari eta ordaintzei buruzko ebazpena.

Diru-laguntza emateko ebazpenak eszedentzia osoari dagokion laguntza aitortuko du, eta hura ordainduko du laguntza osoa ematen duen ebazpenarekin batera.

11. artikulua. Baldintzak egiaztatzea diruz lagundu daitekeen aldia amaitzean.

Diruz lagundu daitekeen aldia amaitu ondoren, onuradunak, lanera itzultzen denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean, seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran egon den aldia egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren agiria aurkeztu beharko du.

Kooperatiba-sozietateetako bazkide langileen edo lan-bazkideen kasuan, sistema publikoa osatzen duen gizarte prestazioen kooperatiba-sistema bat badute, kooperatiba-enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, zeinean aurreko paragrafoan aipatutako egoera bera egiaztatuko baita.

Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek kontratatutako pertsona baten kotizazioa egiaztatu beharko dute, 6. artikuluan f) letran ezarritako baldintzetan, diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean.

12. artikulua. Laguntza itzultzeko kasuak.

Foru lege honetan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badira, jasotako laguntzak itzuli beharko dira, Diru-laguntzei buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honek indarra hartu aurreko eszedentziak eskatzeko epea.

3. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak, foru lege honek indarra hartu aurretik seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzian badaude, laguntza eskatu beharko dute foru legea indarrean jarri eta gehienez hilabeteko epean.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Eraginak eta indarrean sartzeari.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.